

7. UNITATEA: SAREAN IRAKATSI ETA IKASTEKO ORIENTABIDEAK

Helburuak:

- Hezkuntza-egoera berriaren ezaugarriak aztertzea.
- Elkarlanean ikasteko eta irakasteko komunitate birtualen oinarri teorikoez jabetzea.
- Talde-lanaren eta irakaslearen gidaritzaren nolakotasunak berrikustea.
- Ikasgelan sarean ikasteko informatika-inguruneen berri izatea.

Edukiak:

- Hezkuntza-paradigma berriaren ezaugarriak.
- Ikasteko komunitate birtualak.
- Ikaskuntza elkarlanean.
- Talde-lana.
- Sarean irakasteko eta ikasteko informatika-inguruneak.

Irakurgai gomendatuak:

Cabero Almenara, Julio: «**El ciberespacio: el no lugar como lugar educativo**». Sevillako Unibertsitatea. Argitaratzailea: Eductec 95. Helbidea: <http://www.uib.es/depart/gte/cabero.html>

Zañartu Correa, Luz María: «**Aprendizaje colaborativo: una nueva forma de diálogo interpersonal y en red**». Quaderns digitals. *Revista Nuevas Tecnologías y Sociedad* aldizkariaren 27. zenbakia. Helbidea: <http://www.quadernsdigitals.net>

Lucero, María Margarita: «**Entre el trabajo colaborativo y el aprendizaje colaborativo**». *Revista Latinoamericana* (OEI). Helbide honetan daukazue, PDF formatuan: <http://www.rieoei.org/deloslectores/528Lucero.PDF>

1. JARDUERA: SAREAN IRAKASTEA ETA IKASTEA

Hezkuntza-egoera berria

Sarean irakasteko eta ikasteko aukera da, hain zuzen, IKTek hezkuntzaren arlora ekarritako aldaketarik garrantzitsuenetako bat.

Hemendik aurrera, elkarlanean eta taldean ikasteko ezinbestekoa izango da sarean aritzea. Inoiz baino balio handiagoa eman behar diogu ikasmolde horri, **lehenago edo geroago guztiok geure burua egokitu behar izango baitugu** egoera aldakor honetan.

Gainera, ikastaro honetan ikusten ari garenez, IKTek **aldatu egin dute irakasteko eta ikasteko metodologia**. Aldaketa horren izozmendiaren tontorra baino ez dugu ikusi, eta, IKT dinamizatzailerak garen aldetik, prozesuaren gidari izan behar dugu.

Prest al zaudete? Unitate honetan, tresna batzuk eskainiko ditugu...

Unitatean murgildu baino lehen, irakurri berriro elkarlaneko proiektuei buruzko jarduera, aurreko unitatean.

Beste jarduera didaktiko asko ere erabil daitezke, orain ikusiko duguna praktikan jartzeko, baina elkarlaneko proiektuak edo telematika-proiektuak talde-lanaren eredurik onenak dira.

Sarean irakasteak eta ikasteak beste dimentsio batera eramango gaitu **hezkuntzaren paradigman**. Hona hemen egoera berri horren ezaugarri batzuk:

- Irakasle eta ikasleek eraikitzen dute **ezagutza**, elkarlanean.
- **Ikaslea** eraikitzaile aktiboa da: bere ezagutzak aurkitu eta sortzen ditu.
- **Ikaskuntza** soziala da, komunitate-ingurune bat behar du ikasten ikasteko motibazioa izateko.
- **Trukeak** ikasleen arteko, irakasleen arteko eta ikasle eta irakasleen arteko harreman pertsonalen bidez egiten dira.
- Ikaskuntzaren **testuinguruak** ikasgelako lankidetzat du oinarri. Gero, beste urrats bat egin beharko da, beste talde eta ikastetxe batzuekin elkartzeko.

Beharbada, **jarrer**a-aldaketarik nabariena irakasleen eta ikasleen arteko harremanen egiturari dagozkio:

- Harremana horizontala da. Izan ere, irakasle eta ikasleek partekatu egiten dute elkarreraginaren eta esplorazioaren bidez ikasteko erronka, hainbat bitarteko (elkarreragileak, eragileak eta azalpenak) baliatuz.

- Ahaleginak bateratu behar dira sarean ezagutzak garatzen eta erabiltzen dituztenen artean, elkarlanaren bidez.
- Teknologiari dagokionez, irakasleok zailtasunak eta beldurrak izaten ditugun arren, gure ikasleek naturaltasun handiz erabiltzen dute. Horregatik, ahalegin berezia egin behar dugu arlo horretan. Gure helburua ez da izango informatikan adituak izatea, baizik eta ordenagailuei beldurrik ez izatea eta ekipoa hondatuko ez dugula ziur egotea. Teknologian trebatzeko erarik onena hau da: beharrezkoa denean erabiltzea, eta arazoak konpontzeko bideak bilatzea.

Jarreraz aldatuz geroztik, ikasleen auzune globalaz gozaten hasiko gara. Auzune horretan, baliabideak ere globalak dira, baina norberaren beharrezanetara egokituak, eta esperientzia bakoitzak eta jarduera berri bakoitzak eskaintzen diguten «kutsu» berezia dute, tokian tokikoa batzuetan.

Irakasleei metodologia aldatzen lagunduko dieten elementu batzuk aurkeztuko dizkizuegu unitate honetan. Hauexek aztertuko ditugu:

- *ikasteko komunitate birtuala* kontzeptua,
- talde-lanaren oinarriak,
- PCekin egiten den talde-lanaren ezaugarriak,
- eta sarean jarduerak egiteko erabil ditzakegun informatika-tresna batzuk.

Unitatearen xede nagusia hau da: irakasleei sarean lan egiteko metodologia aplikatzen lagunduko dieten lehen jarraibideak eta tresnak eskaintzea.

Oro har, telematika-proiektuen webguneak horrelako plataformen adibide onak dira.

Komunitate horiekin bat eginez gero, oso garrantzizkoa da **parte-hartze aktiboa** izatea, beste parte-hartzaileei mezuak, erantzunak edo iruzkinak bidaliz. Horrela, espazio birtual bizia lortuko dugu.

Gogoan izan behar dugu idaztea izango dela ikaskuntza-talde horietan parte hartzeko bide bakarra. Hezkuntza-truke guztietan bezala, funtsezkoa izango da elkarlanerako jarrera izatea eta besteen ideiak errespetatzea.

Honako oinarri hauek izan behar ditu ikasteko komunitatean egiten den lanak:

- **guztiek onartutako helburu argia;**
- elkarrenganako **begirunea;**
- **komunikazio** arina eta etengabea.

Horretarako, baldintza hauek bete behar dira:

- taldekideen lanean **konfiantza** izatea;
- trukerako giro **formalak** eta **informalak** izatea.

Azkenik, gune horien sustatzaileak (irakasleak edo dinamizatzaileak) **komunitateko kideak direla sentiarazi** behar die guztiei. Leku fisiko bateko kide direla sentitu behar dute, baina komunitate birtual batean.

Denboran nahiz espazioan elkarrekin egon ez arren, beste pertsonak ondoan dituzula eta zure komunitateko kideak direla sentitu behar duzu; zure interes eta proiektu berberak dituztela jakin behar duzu. Horixe izan daiteke teknologia erabiltzeko ahaleginei eusteko gakoa.

Ikasteko komunitate birtualak ataza komunen inguruan eratzen dira. Teknologia eta beste leku batzuetako pertsonetikiko harremanak bitartekoak baino ez dira, eta komunitatearen ardatza ataza izaten da beti. Atazaren helburua hauxe da: komunitateko kideentzat interesgarria den gai bati buruzko ezagutza sortzea.

Elkarlaneko ikaskuntza



Elkarlaneko ikaskuntzaren helburua hauxe da: taldekide bakoitzak bereganatzea taldeko elkarrenginaren emaitzak (ezaguerak, trebetasunak edo jarrerak). Ikasteko eredu horretan, ikasle talde txikiak harremanetan jarri, eta elkarlanean aritzen dira arazoak konpontzeko.

Beraz, lan-taldean lankidetzat sustatu nahi duen irakasleak lana kontzeptualizatzeko eskatuko die ikasleei, prozeduren errepikatze hutsa izan ez dadin. Egiten ari direnaz **hitz egiteko** eskatuko die etengabe, iritziak trukatzeko. Horrela, ikaskide batekin elkarlanean aritzeko,

ikasleak hitzez adierazi behar ditu arazoak eta balizko konponbideak; esplizitatu egin behar ditu. Horrenbestez, norberaren jakinduria besteen eskura egongo da.

Teknologia euskarri ona da elkarlaneko ikaskuntza sustatzeko. Izan ere, keinuen edo ikusmenaren bidezko komunikaziorik ez dagoenez, elkarrekin komunikatu nahi dutenek idatziz eta esplizituki adierazi behar dute dena. Hitzez adierazi behar izatea lagungarri da gure ekintzak kontzeptualizatzeko.

70eko eta 80ko hamarkadetan egindako ikerlan askok frogatu dutenez, taldekideen arteko lankidetzak eragin positiboa izaten du taldearen motibazioan, errendimenduan eta emaitzetan. Gaur egun gauza jakina da eraginkorragoa dela ikaskideekin elkarlanean eta trukean ikastea. Horregatik, elkarlanak funtsezko lekua hartu behar du gure dinamikan. Izan ere, gaur egungo ikaskuntza prozesu globala bihurtzen ari da: ikasleek mota askotako informazio-baliabideak erabil ditzakete, eta beste erabiltzaile-komunitate batzuekin komunika daitezke.

Ikusmolde horretaz baliaturik, ikasteko komunitate birtualek elkarlana dute oinarri.

Labur-zurrean, hona hemen zer onura dituen elkarlanak komunitate birtualeko ikasleentzat:

- **Elkarreragin** handia sor daiteke taldekideen artean.
- **Trebetasun kognitiboak garatzen** dira, baliabideak aztertzeke, esploratzeko, bereizteke eta ulertzeke.
- **Komunikazio-trebetasunak garatzen** dira, asmoak, planak eta helburuak esplizituago adierazteke.
- Atazak egitean **sinergia** sorrarazi, eta taldekide guztien ekarpenen garrantzia azaleratzen da.
- Lan-taldean egin beharrekoak **antolatzen** eta egituratzen laguntzen du.
- **Pentsaera kritikoa sustatzen** da.
- Ikasleak **aniztasunaz** jabetzen dira, eta hori lagungarria da beste ikasle eta pentsamolde batzuekin batera aritzeko.

Praktika 1

Ikastetxean ikaskuntza mota hori sustatzeko jarduerak (presentzialak nahiz birtualak) inoiz egin badituzu, esplikatuz esperientzia beste irakasleei, abantailak eta eragozpenak nabarmenduz. Horrelako esperientziarik izan ez baduzu, onuragarria iruditzen al zaizu elkarlana ikaskuntza sustatzeko?


Zure iritziz, zein dira gairik egokienak?

2. JARDUERA: TALDE-LANA

Komunitate birtualen helburua hau da: elkarlanaren bidez ikastea. Orduan, zenbait galdera agertzen dira: **Nola egin hori ikasgelan? Nola lan egingo dugu ikasleekin?**

Zalantzarik gabe, erantzuna talde-lana da. Noiz edo noiz, guztiok koordinatu ditugu lan-talde txikiak, ordenagailuekin edo ordenagailurik gabe. Esperientzia hori oso baliagarria izango da *sarean irakasteko eta ikasteko*.

Inondik ere, dagoeneko ondo ezagutzen duzue lan egiteko era hori. Dena dela, haren ezaugarri batzuk gogoratuko ditugu, talde-lanaren elementuak oinarritzat harturik:



- Ikasleek talde txikietako **lan-teknikak** ezagutu behar dituzte, elkarrekin lan egiteko, ideiak adierazten ikasteko, taldeari laguntza emateko eta gatazkak onbidertzeko. Funtsezkoa da ikasleek talde txikietan lan egiten ikastea. Proiektuak garatzen diren bitartean, irakasleak elkarrekin bizitzen ikasteko eta talde-lana hobetzeko teknikak eskaini behar dizkie ikasleei.
- Ikasleen arteko **zuzeneko elkarreaginak**. Elkarreaginak aukera ematen du guztientzat interesgarriak diren arloetan topo egiteko eta besteen ezagueretan eta trebetasunetan eragiteko. Nahitaezkoa izango da taldekide guztiak asmo bera izatea; hau da, banakako ahalegin guztiak bateratuko dituzten eta bakoitzaren ahalmena bideratuko duten interesak izatea.
- **Interdependentzia positiboa** lortzen da, taldekide bakoitzaren ekintzak taldekide guztien onerako direnean. Elkarlanak sinergia sortzen du: osotasuna parte baina hobea da. Horren ondorioz, taldekide guztien ekarpenak ezinbestekoak dira ezarritako helburuak erdiesteko.
- **Norberaren ardura**. Ikasle bakoitzari taldeari ekarpen garrantzitsuak egiteko aukera ematen zaionean garatzen da. Ekintza-estrategia zehatzak prestatu behar ditugu, taldekide guztiak beren trebetasunak parteka ditzaten eta, horrenbestez, guztiak onar dezaten lanarekiko erantzukizuna.

- **Talde-dinamikaren** bidez, ikasleek taldearen jardunbideaz gogoeta egiten dute, *feedbacka* jaso, eta hurrengo ekintzetan pentsatzen dute.

Talde-lanerako, behar-beharrezkoa da ikasleek beren ideiak adieraztea, elkarri entzutea, irtenbide alternatiboak aztertzea eta bakoitzak bere ikuspuntuak agertzea. Horretarako, honako gaitasun hauek garatu behar dituzte arian-arian:

- Informazioa gogoz bilatzea eta tratatzea.
- Atazan erabiltzen diren tresna teknologikoen bidez komunikatzeko eta adierazteko prest egotea.
- Kritikak onartzea eta erabakiak hartzea.
- Norberaren nahiz besteen ideiak aztertzeke eta zalantzan jartzeko prest egotea.

Talde-lanaren elementu horiek lagungarri dira, elkarlanean ikasteko beharrezkoak diren baldintzak zehazteko eta lortzeko.

Rolen banaketa

Lan-taldeak eratzean, irakasleak zereginak eta rolak banatu behar ditu taldekideen artean. Horrela, taldekideen arteko interdependentzia, elkarlanerako trebetasunen garapena eta norberaren ardura sustatzen dira.

Arduren banaketak ez du inolako hierarkiarik sortu behar, ikasleak elkarren rolen garrantzia alderatzen has ez daitezten. Onena da rolak txandakatzea, taldekide guztiek zeregin guztiak bete ditzaten.

Hona hemen, proposamen gisa, zereginak banatzeko rol batzuk eta bakoitzaren eginkizun zehatzak:

<u>BIDERATZAILEA</u>	<u>KOMUNIKATZAILEA</u>
<ul style="list-style-type: none"> • Jarduera ulertzen laguntzen die taldekideei. • Eztabaiden moderatzailea da. • Taldekide guztien parte-hartzea eta komunikazioa sustatzen ditu. 	<ul style="list-style-type: none"> • Irakasleari galdetu eta orientabideak eskatzen dizkio. • Beste komunikatzaileekin hitz egiten du. • Taldearen bozeramailea da. • Jasotako mezuen berri ematen dio taldeari. • Taldeak sortzen dituen mezuak bidaltzen ditu.

<u>MATERIAL ARDURADUNA</u>	<u>IDAZKARIA</u>
<ul style="list-style-type: none"> • Materiala garbi eta txukun edukitzeaz arduratzen da. • Edozein jarduera egiteko beharrezkoak diren materialen zerrenda egiten du. • Materiala bilatzeaz eta itzultzeaz arduratzen da. • Informazio-iturriak bilatzen ditu. 	<ul style="list-style-type: none"> • Taldeko behaketetan edo eztabaidetan lorturiko datuak idazten ditu. • Laburpenak edo txostenak egiten ditu, programa egokiak erabiliz. • Mezuak bidaltzen edo jasotzen laguntzen dio komunikatzaileari.

Ikasgelan edo ikastetxean antolatutako talde txikietan banatu behar dira zereginak, baina komunitate birtualetan ere oso baliagarria da.

Zereginak hainbat erataria bana daitezke. Hona hemen aukera bat: taldekideen ardurak eta rolak txartel plastifikatuetan idatzi eta txartelak taldekideen artean ausaz banatu. Beharrezkoa izanez gero, ikasle batek baino gehiagok bete dezakete rol bakoitza.

Funtsezkoa izango da irakasleak hasieran eginkizunak azaltzea, eta aldiro gogoraraztea ikasleek erabat ulertu edo barneratu arte.

Talde-laneko uneak

Irakasleak ikasleak koordinatu, orientatu eta gidatu behar ditu talde-lanean, eta elkarlanean ikasteko egoki diren egoerak sortzeko tresnak eta estrategiak emango dizkie.

Helburuak finkatutakoan, ikastea zeregin nagusizat harturik, irakasle bideratzaile batek ikasleak **gidatzen** ditu talde-laneko une guztietan. Talde-lanak, eskuarki, hiru une nagusi ditu, une bakoitzean beharrezkoak izan daitezkeen esku-hartzeak eta laguntzak zehazteko:

- a) zer egin
- b) nola egin
- c) egin

a) Taldeak **zer egin** eztabaidatu bitartean, irakasleak hauxe egingo du:

- Agindua argitzen lagundu;
- taldekide guztien parte-hartzea sustatu;
- hurrengo mailara pasatu aurretik taldekide guztiek agindua ulertu dutela ziurtatu;
- ziurtasun faltari aurre egin, behar beste informazio emanaz;
- errakuntza-tartea murriztu, gauzak argi azalduz eta uste okerrak ezabatuz.

b) *Zer egin* zehaztutakoan, taldeak **nola egin** erabaki behar du. Litekeena da une horretan taldekide batzuek soilik proposamenak egitea. Dena den, funtsezkoa izango da prozedura denon artean hautatzea, gehiengo handiz. Une horretan, hauxe egin behar du irakasleak:

- Taldeari galderak egin, zeregina nola bideratu alde aurretik zehazteko;
- plangintza eraginkorra egiteko elementuak eman;
- taldekide bakoitzak bere eginkizunak betetzen dituela zaindu;
- arazoen konponbide demokratikoa sustatu;
- arrazoitzea eta gogoeta bultzatu.

c) Azkenik, ataza **egiteko** unea heltzen da; alegia, maila operatiboan sartzen gara. Aurreko unek ondo bete badira, azken maila horretan ez da zalantzarik edo arazorik egongo. Hala ere, une horretan komeni da irakasleak:

- taldekideen rolak eta ardurak legitimatzea;
- lanaren kalitatea bermatzea, edo moldaketak egin behar direla ohartarazteko galderak egitea;
- ikasleei atazaren funtsa gogoraraztea;
- denbora ondo erabili behar dutela gaztigatzea, atazak aurrez ezarritako epean amaituko direla ziurtatzeko.

Praktika 2

Azal ezazu foroan, labur-labur, inoiz egin duzun edo ezagutzen duzun talde-laneko jardueraren bat, eta aipa itzazu jarduera horren alderdirik onenak.

3. JARDUERA: ELKARREKIN ATARIKO LAN-TALDEAK

Elkarrekin atarian badaude lan-talde ondo trebatuak eta tresna egokiz hornituak. Eskura dituzue. Beraz, haien dinamika eta funtzionamendua azalduko dizkizuegu.

Lan-taldeen funtzionamendua.

Helburua: Elkarrekin atariko lan-taldeen kontzeptua, ahalbideak eta funtzionamendua aurkeztea.


Jakingarriak:


Komunitate birtual honetan, lan-taldeak irakasleen arteko elkarlanaren giltzarriak dira. Antzeko interesak dituzten irakasleek osatzen dute talde bakoitza. Talde bakoitzean moderatzaile bat dago. Moderatzaileak taldea dinamizatu eta kudeatzen du (erabiltzaileen izen-emateak...).


Elkarrekin-en ohiko erabiltzaile bat gune mugatuan sartzen denean (talderen batean izena eman badu), bere taldea edo taldeak bistaratzen dira (menuko **Grupos** aukera sakatuz ere ikusiko ditu):

Taldearen izena letra lodiz agertzen da (adibidean, bi taldeen izenak). Honako tresna hauek daude (taldekideen eskura soilik):

- Foro bat edo gehiago. Foroaren izena taldearen izenaren azpian agertzen da.

- Karpeta 

- Agenda 

- Txata 

Talde bateko kidea izan nahi baduzu:

- Egin klik «Taldeak» aukeran, ezkerreko menuan:
- Hautatu «bat egin taldearekin» aukera:


- Markatu interesatzen zaizun taldearen (edo taldeen) ezkerreko laukia (erabiltzaile

berrientzako talde bat dago, probak egiteko. Zerrendako lehena da):



- Azkenik, sakatu «Onartu» botoia.
- Talde batekin bat egin nahi izan arren, taldeko moderatzaileak baimenik ematen ez badizu, mezu baten jasoko duzu erantzun horren azalpena. Moderatzaileak taldean onartzen bazaitu, berriz, taldea ikusiko duzu, Elkarrekin atarira sartzen zaren bakoitzean.

Talde berri bat sortzeko. Erabiltzaile batek edo batzuek beste talde bat sortu nahi dutenean, taldeko moderatzaile izango denak mezu elektronikoa bidaliko du, eskaera eginez:

- Egin klik  ikonoan (orri nagusian):



- Gero, mezua idatzi, honako datu hauek adieraziz:
 - o Taldearen izena.
 - o Moderatzailearen izena eta helbide elektronikoa.


Posta elektronikoa bidez, taldea abian dagoela jakinarazi eta erabilera-arauak bidaliko dizkizute.

Talde batean baja emateko:

- Gune mugatuan sartuta, hauta ezazu menu pribatuko «Taldea» aukera:



- Egin klik «taldeetan baja eman» aukeran:



- Adierazi zer talde utzi nahi duzun, ezkerreko laukietan klik eginez, eta sakatu «Ezabatu» botoia:

darse de baja de los grupo/s

GRUPOS

[Gipuzkoako IKT Aholkulariak](#)

Borrar

cerrar

Ordutik aurrera, erabiltzaileak ez du ikusiko talde hori.

Taldeen erabilera.

Helburua: Elkarrekin-eko taldeen kontzeptuaz jabetzea, eta taldeak erabiltzen trebatzea (antzeko interesak dituzten irakasleek Interneten bidez elkarlanean aritzea, lan horren baliagarritasuna eta eraginkortasuna...)

Jakingarriak:

Elkarrekin-en erabiltzailea gune mugatuan sartzen denean (edo menuko aukera sakatzen duenean), bere taldea edo taldeak bistaraten dira:

Grupos

Estos son los grupos a los que estás suscrito.

Si quieres ver otros grupos (en los que puedes pedir el alta) pulsa la opción "unirse a un grupo".

Última conexión: 29/05/2005 - 18:59

darse de baja de los grupo/s unirse a un grupo

Erabiltzaile berrientzat - Nuevos usuarios

Froga egiteko Foroak - Foro para pruebas

Chat

Nombre del grupo

Foro Carpeta Agenda

Taldearen izena letra lodiz agertzen da. Honako tresna hauek daude (taldekideen eskura soilik):

- Foro bat edo gehiago. Foroaren izena taldearen izenaren azpian agertzen da, letra arruntez.

- Karpeta 
- Agenda 
- Txata 

Foroa erabiltzeko, egin klik izenaren gainean:

secuencialmente por fecha por autor

[Volver] [Nueva aportación]

Ikastaroa. 1. astea

 [Nuestras presentaciones](#) (25/11/2003)
Víctor Bermejo González victor@gipuztik.net

 [Re:Nuestras presentaciones](#) (26/11/2003)
acaranvives Curso Coordinadores acaranvives@edebedigital.com

 [Josi Re:Nuestras presentaciones y aportaciones 'ricas'](#) (26/11/2003)
josi sierra orrantia josi@berrikuntza.net


 [Re:Nuestras presentaciones](#) (25/11/2003)
Koldo Etxebarria Arabaolatza koldo@gipuztik.net

- Zerbait esateko, sakatu **[Nueva aportación]** eta bete bi eremuak:

- Besteen ekarpenak irakurtzeko, egin klik izenburuaren gainean:

- Ekarpenari erantzuteko, sakatu **[responder]** aukera.

Karpetak erabiliz, taldekideek lan-dokumentuak eta edozein fitxategi mota jar ditzakete besteen esku. Taldeko moderatzaileak erabakiko du lan guztia karpeta bakarrean edo hainbat karpetan egingo den. Taldekideek fitxategiak «jaisi» ahal dituzte, eta nahi dituztenak «igo».

- Karpetak irekitzeko, sakatu .

- Karpetarik ez badago, zuzenean ikusiko ditugu fitxategiak. Karpetarik egonez gero, karpeta izenaren gainean klik egin behar da, barrura sartzeko:



- Fitxategi baten izenaren gainean klik egiten denean, edukiaren laburpen txiki bat eta fitxategia jaisteko esteka ageri dira:



- Fitxategi bat «igotzeko» eta beste taldekideen esku jartzeko, egin klik hemen:



- Gero, fitxa bete:

ALTA FICHA

Título

Descripción


Enlace


Documento

- o Ikusten denez, fitxategi bat edo esteka bat, edo biak, sar daitezke.

Izenak berak adierazi bezala, agenda atalean (bakarra talde bakoitzean) taldearentzat

garrantzitsuak diren barruko nahiz kanpoko gertaerak jasotzen dira.

- Agenda irekitzeko, egin klik  ikonoan:



Agenda privada

[Volver]

Mayo 2005


l	m	x	j	v	s	d
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					


Añadir acto Novedades

Semana: 30/05/2005 - 05/06/2005

- Egun baten gainean klik egitean, egun horretako egintzak bistaritzen dira.
- **Añadir acto** aukerak agendan beste egintza bat sartzeko balio du.

Txata foroko kideen artean «solas egiteko» erabiltzen da. Ezinbestekoa da solasaldien eguna eta ordua adostea, solaskide guztiek *on-line* egon behar dute eta.

- Txatean sartzeko, egin klik  ikonoan:



Chat

No hay ningún mensaje en estos momentos.

1 Usuarios
José Orenaga Vara

Enviar Salir

Mezua idatzi, eta **Bidali** sakatu. Zurigunean txatean dauden pertsona guztien (taldekideen) mezuak agertuko dira.

Taldeko moderatzailearen eginkizuna

Helburua: Taldeko moderatzailearen eginkizun garrantzitsua aurkeztea, eta horretaz gogoeta egitea.

Jakingarriak:

Elkarrekin-en, taldeko moderatzaileak bi eginkizun bete behar ditu:

- Taldearen beharrianak kudeatu:
 - Izen-emateak, talde-uzteak eta taldeko erabiltzaileen inguruko gorabehera guztiak kudeatu.
 - Taldeak oinarrizko lau tresnak (foroa, karpetak, agenda eta txata) izan behar dituen erabaki.
 - Talde bakoitzaren eguneroko lana antolatu eta zaindu (izen-emateak, talde-uzteak eta taldeko erabiltzaileen inguruko gorabeherak).
- Taldearen lana dinamizatu. Zalantzarik gabe, horixe da eginkizunik garrantzitsuena, ezinbestekoa baita taldea ondo ibiltzeko eta erabiltzaileentzat benetan baliagarria izateko.

Aukera paregabea duzue esperientziak eta ezagutzak zeuenganatzeko eta beste irakasleei ekarpen interesgarriak egiteko. Eutsi!

4. JARDUERA: SAREAN IRAKASTEKO ETA IKASTEKO INFORMATIKA-INGURUNEAK

Gaur egun, ikasgela askotan ordenagailuak daude, sarean eta Internetera konektaturik. Irakasleek zalantzak izaten dituzte ikasgela horiek antolatzean edo metodologia hautatzean. Nola antolatu jarduerak PCak dituen ikasgela batean? Nola antolatu eta zuzendu eskolak, ikasle bakoitzak ordenagailu bat daukan ikasgela batean, kontuan izanik ordenagailuak, lagundu beharrean, ikasleari arreta galaraz diezaiokeela? Nola lortu ikasleek teklatura eta sagua uztea eta irakaslearen azalpenei adi egotea? Zer egin, ikasleen deiei erantzunez, lorerik lore bezala, PC batetik bestera ez ibiltzeko?

Lehen urratsak egitean, konturatuko gara nolako ondorioak izaten dituen gauza berriak egiteak: urduritasuna, zalantzak, nora eza, sakabanatzeko joera... Horiek ez dira teknologia-gelaren ondorioak, berritasunarenak baizik... Denborarekin, arian-arian ezereztu egiten dira.

Teknologia-gela balio anitzeko baliabidea da. Alde batetik, abantaila ugari ditu: lan egiteko era berriak ahalbidetzen ditu; esploratzeko eta arazoak konpontzeko tresna berriak eskaintzen ditu; eta ordenagailua erabiltzen trebatzeko aukera ematen die ikasleei, besteak beste.

Bestetik, ordea, badira arrisku txiki batzuk. Hala, esaterako, gauza berria denez gero, litekeena da ikaslearen arreta guztia bereganatzea, ikaslea irakaslearengandik urruntzea eta, ondorioz, ikastaldea aztoratzea.

Horregatik, irakasleari lagundu egin behar diogu objektu berri hori ikasgelan integratzen, eskolen kontrola gal ez dezan.

Batzuetan, ikasleek norberaren PCan denetarik jarduerak egiten dituzten bitartean, irakaslea gogotik ahalegintzen da eskola antolatzen eta kontrolatzen. Bizi izan al duzue inoiz egoera hori?

Ordenagailu pertsonalaren berezitasun nagusia hauxe da: erabiltzailearen menpe eta haren zerbitzuan dago, eta, eskolan, ikaslea da erabiltzailea.

Baina, zorionez, **irtenbide erraz eta erosoak daude**. Haietako batzuk aztertuko ditugu orain.

Egoera horretan, oso lagungarria izan daiteke irakaslearen PCtik bertatik eskola oso erraz gidatzeko eta kontrolatzeko programak erabiltzea. Programa horien helburua irakasleari laguntzea da, baina eskolak emateko ohiko era ordeztu gabe. **Ikasgelako ordenagailu guztiak irakaslearen ordenagailutik kontrolatzea ahalbidetzen dute, besterik ez.**

Ikasgelako espazio fisikoa eta arbela baliabide egokiak dira irakasteko eta ikasteko. Irakaslearen presentzia, ahotsa eta keinuak baliabide ezin egokiagoak dira. PCen sare «zabaldia» pedagogia-tresna baliagarria izan daiteke, eta teknologia-gela batera joatera ausartzen den irakasleak zeregin askotarako erabil dezake.

UltraVNC

<http://ultravnc.sourceforge.net/>

Erabilera libreko multiplataforma-programa. Ingelesean dago. Beste PC batzuk urrundik kontrolatzea ahalbidetzen du, erraz bai erraz, TCP/IP konexio baten bidez.

VNC (Virtual Network Computing)

<http://www.vnc.com>

Ingalaterrako RealVNC konpainiak ordenagailu batetik beste ordenagailu bat urrundik kontrolatzeko multiplataforma-programa bat eskaintzen du. Hiru bertsio daude: librea, pertsonala eta enpresentzat (azken bi horiek lizentziadunak).

Edebénet

<http://www.edebedigital.com>



Ikasgelan ordenagailuak erabiltzen eskarmentu handia duten irakasleek diseinatutako programa bat da. Erabilerraza da, eta ikasgelako irakaskuntzara egokituta dago. Ikastaldea kontrolatzen laguntzen dio irakasleari. Horrela, buru-belarri lotu ahal zaio irakasteari, programaren erabilerak ez baitie arreta galarazten ez berari ez ikasleei.

Edebéneten proba-bertsioa erabili nahi baduzu, behera karga dezakezu. Beharrezko azpiegitura izanez gero, proba egitea gomendatzen dizugu.

<http://www.edebedigital.net/edebenet/>

Jarduera orokorra

Beharrezkoa iruditzen al zaizu IKTak integratzeko metodologia-aldaketa koherentea egitea?

Zer deritzozu orain arte bezala irakasten jarraitzeari, baina ordenagailuak erabilia?